a. Bere bizikidetza unitateko ohiko egoitzaren etxebizitzarekiko OHZn subjektu pasiboa izateagatik baldin bada laguntza

Diru laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko ohiko etxebizitza den higiezinarengatik onuradunari 2015ean ordaintzea legokiokeen OHZ kuotari ondorengo portzentaje taula aplikatuko zaio.

| Seme-alaba kopurua | Hileko soldata, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekiko (LAGS) | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | **x** ≤ LAGS | **x:** LAGS + %10 arte | **x:** LAGS + %20 arte | **x:** LAGS + %30 arte | **x:** LAGS + %50 arte | **x:** LAGS + %60 arte |
| 3 | %45 | %40 | %25 | %15 | - | - |
| 4 | %45 | %45 | %40 | %25 | %15 | - |
| 5 edo > | %50 | %45 | %45 | %40 | %25 | %15 |

**X =** Familia unitateko kide guztien soldaten batura zati familia unitateko kide kopurua.

Diru laguntza eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da, eta eskaerarekin batera agiri osagarri guztiak aurkeztu beharko dira. Sail horretako teknikariek familia-unitatea osatzen duten kide guztien "hileko soldata mailaren" berri emango dute.